Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 15a, osteguna — 90 — Jueves, a 15 de mayo de 2025

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

*Erabakia, UPV/EHUko errektorearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana, kostuen egituraren proposamena eta prezioak berrikusteko sistema (Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen batzorde iraunkorraren martxoaren 3ko 8/2025 txostenaren ondoren berrikusitako azken bi dokumentu horien bertsioak). UPV/EHUren Gipuzkoako Campusean unibertsitate egoitza berria proiektatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko obra publikoen emakida.*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2024ko martxoaren 25ean emandako erabakiaren bidez erabaki da, SPKLren (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora) 247. artikuluan jaso legez, bideragarritasun azterlana egin beharrean ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana egitea, eta halaxe agindu du.

Gipuzkoako Campusean unibertsitate egoitza berria izateko beharra asetzeko sinatuko den obra emakidaren kontratuak prestatzeko esku-hartzeen parte da izapide hau.

*Bigarrena.* 2024ko martxoaren 27an amaitu eta sinatu zen aipatutako bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterlana. Era berean, egun berean, kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko sistemari buruzko proposamena erantsi zitzaion espedienteari.

SPKLren 248.3 artikuluaren arabera, UPV/EHUk jendaurrean jarri zuen bideragarritasun-azterlana, hilabeteko epean. Beherago aipatzen den arauzko aurreikuspenari helduz, informazio-izapide horren barruan kostuen egituraren eta prezioak berrikusteko sistemaren balorazio-txostena jendaurrean jartzeari dagokiona sartzea erabaki zen.

Aurreko aldia amaitu ondoren, alegaziorik ez zela jaso egiaztatu zen.

*Hirugarrena.* Aurreko izapideak gauzatu ondoren, 2024ko maiatzaren 28an erregistratu zen Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendutako eskaera, kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostena egin zezan.

Eskaera horri erantzunez, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrak 8/2025 Txostena egin zuen, martxoaren 3koa.

Organo horrek honako hau adierazten du bere ondorioetan: «Batzordearen irizpidearen arabera zuzendu beharko liratekeen hainbat elementu egiaztatzen dira, eta horien artean nagusia prezioak berrikusteko formula baten diseinua da, finantza-kostuen pisua aintzatetsiko duena eta datuetan oinarrituko dena behar bezala bereizita.

Ondorioz, aipatutako kontratuari buruzko txostena egin da, haren edukia kontratuan jasotako oharretara egokituko dela kontuan hartuta.»

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

*Resolución del rector de la UPV/EHU por la que somete a información pública el estudio de viabilidad económico-financiera, la propuesta de estructura de costes y el sistema de revisión de precios (versiones de estos dos últimos documentos revisadas tras informe 8/2025, de 3 de marzo, de la comisión permanente de la Junta Asesora de Contratación Pública). Concesión de obra pública relativa a la redacción del proyecto, construcción y posterior explotación de una nueva residencia universitaria en el Campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU.*

ANTECEDENTES

*Primero.* Mediante Resolución emitida el 25 de marzo de 2024 se acordó la sustitución del estudio de viabilidad a que se refiere el artículo 247 de la LCSP (Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014) por un estudio de viabilidad económico-financiera y ordenó su confección.

Este trámite forma parte de las actuaciones preparatorias del contrato de concesión de obras que se pretende suscribir para satisfacer la necesidad de contar con una nueva residencia universitaria en el Campus de Gipuzkoa.

*Segundo.* El 27 de marzo de 2024 se culminó y suscribió el estudio de viabilidad económico-financiera aludido. Asimismo, en la misma fecha se incorporó al expediente la propuesta de estructura de costes y sistema de revisión de precios.

De conformidad con el artículo 248.3 de la LCSP, la UPV/EHU sometió el estudio de viabilidad a información pública por el plazo de un mes. Acogiendo la previsión reglamentaria que se cita más abajo se optó por incluir dentro de este trámite de información el correspondiente a la exposición pública del informe valorativo de la estructura de costes y sistema de revisión de precios.

Tras completar el periodo anterior, se constató que no se habían recibido alegaciones.

*Tercero.* Una vez sustanciados los trámites anteriores, con fecha 28 de mayo del 2024 se registra la solicitud dirigida a la Junta Asesora de Contratación Pública para que emita informe sobre la estructura de costes y fórmula de revisión de precios.

En respuesta a dicha solicitud la Comisión Permanente de la Junta Asesora de Contratación Pública emite su Informe 8/2025, de 3 de marzo.

Este órgano señala en sus conclusiones que «Se constatan varios elementos que, bajo el criterio de la Junta, deberían ser subsanados, siendo el principal el diseño de una fórmula de revisión de precios que reconozca el peso de los costes financieros y que se base en datos suficientemente desagregados.

En consecuencia, se emite informe sobre el mencionado contrato, en la consideración de que se adaptará su contenido a las observaciones plasmadas en el mismo.»

EK\CV GAO-I-2025-03373

*Laugarrena.* Batzordeak egindako oharrak kontuan hartuta, kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko sistemari buruzko proposamenari dagozkion dokumentuak berregin dira. Era berean, lehen argitaratutako bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren txostena ez da azken bertsioa; beraz, jendaurrean jarriko da, lehen aipatutako dokumentu birlanduekin batera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenegoa.* SPKLren 248.3 artikuluaren arabera, administrazioak jendaurreko informazio aldian jarriko du hilabetez bideragarritasun azterlana, eta, oso konplexua bada, aukera izango da epe hori beste horrenbeste luzatzeko. Era berean, obra dagokion hirigintza plangintzan jasota ez badago, Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia erkidegoetan eta toki erakundeetan eraginpekoak diren organoei igorriko zaie azterlana, hilabeteko epean txostena egin dezaten.

*Bigarrena.* Desindexazioaren Legea garatzen duen Erregelamenduaren (55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena) 9. artikuluan araututa dago sektore publikoko kontratuen prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena (Administrazio Publikoen obra kontratuak eta/edo armamentu eta ekipamendua hornitu eta fabrikatzeko kontratuak ez direnean). Bada, artikulu horri jarraiki, bost milioi euro edo gehiagoko kontratuen kasuan eta, ondorioz, kasu honetan, kontratazio espedientean nahitaez txertatu behar da pleguan jasoko den kostuen egitura baloratzeko txostena, Estatuko Kontratuen Prezioen Batzorde Nagusiak emandakoa.

Autonomia erkidegoen eta toki erakundeen kasuan, baita horien menpeko organismo eta erakundeen kasuan ere, erkidegoan kontratazio publikoaren eskumena duen organo aholku emaileak egin ahalko du txosten hori, halakorik badago.

Hartara, kontratazio organoak, besteak beste, kostuen egitura egindakoan, jendaurrean jarri beharko du proposamen hau hogei egunez.

Agindu horretan bertan jasota dago, halaber, herri lanen emakidako kontratuen kasuan, jendaurrean jartzeko tramitea ezartzea erabaki ahalko duela kontratazio organoak, halaxe xedatzen baitu 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 128.3 artikuluak (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena).

Izan ere, aipatu arauak (gaur egun indargabetuta dagoenak) 128.3 artikuluan xedatzen du bideragarritasun azterlana jendaurrean jarri behar dela; eta halaxe jasota dago, hitzez hitz, SPKLren 248. artikuluaren 3. atalean:

«Administrazio kontzesiogileak jendaurrean jarriko du bideragarritasun azterlana hilabete batez; azterlan hori oso konplexua denean, aukeran izango da epe hori beste hilabete batez luzatzea. Horrez gainera, obra hori dagokion hirigintza plangintzan agertzen ez bada, Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia erkidegoetako administrazioetako eta toki erakundeetako administrazioetako dagokien organoei igorriko die azterlan hori, hilabeteko epean txostena eman dezaten».

*Hirugarrena.* Jendaurreko tramitearen gauzatzeari dagokionez, honako hau xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 83. artikuluak:

«1. Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.

*Cuarto.* En atención a las observaciones formuladas por la Junta se han reelaborado los documentos correspondientes a la propuesta de estructura de costes y sistema de revisión de precios. Asimismo, el informe de viabilidad económico-financiera publicado anteriormente no es la última versión, por lo tanto, se procederá a su exposición pública junto con los documentos reelaborados que se citan anteriormente.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* De conformidad con el artículo 248.3 de la LCSP, la Administración someterá el estudio de viabilidad a información pública por el plazo de un mes, prorrogable por idéntico plazo en razón de la complejidad del mismo y dará traslado de este para informe a los órganos de la Administración General del Estado, las Comunidades Autónomas y Entidades Locales afectados cuando la obra no figure en el correspondiente planeamiento urbanístico, que deberán emitirlo en el plazo de un mes.

*Segundo.* El artículo 9 del Reglamento de la Ley de Desindexación (Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española) (revisión periódica y predeterminada de precios en los contratos del sector público distintos a los contratos de obras y a los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas) en el caso de contratos con un precio igual o superior a cinco millones de euros, como este caso, establece la obligación de incluir en el expediente de contratación un informe preceptivo valorativo de la estructura de costes que se opte por incluir en el Pliego, emitido por el Comité Superior de Precios de Contratos del Estado.

En el caso de las Comunidades Autónomas y de las Entidades Locales, así como de los organismos y entidades de ellas dependientes, este informe podrá ser recabado del órgano autonómico consultivo en materia de contratación pública, si existiera.

A tales efectos, el órgano de contratación debe realizar una serie de actuaciones entre las que se encuentra, una vez elaborada la estructura de costes, el sometimiento de esta propuesta a un trámite de información pública por un plazo de 20 días.

Ese mismo precepto establece que en el caso de los contratos de concesión de obra pública, el órgano de contratación podrá optar por incluir este trámite de información como parte del previsto en el apartado 3 del artículo 128 del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

El apartado 3 del artículo 128 de la norma anteriormente citada, en la actualidad derogada, que alude a la obligación de someter el estudio de viabilidad a información pública, es del siguiente tenor literal, parcialmente coincidente con lo recogido en el apartado 3 del artículo 248 de la LCSP:

«La Administración concedente someterá el estudio de viabilidad a información pública por el plazo de un mes, prorrogable por idéntico plazo en razón de la complejidad del mismo y dará traslado del mismo para informe a los órganos de la Administración General del Estado, las Comunidades Autónomas y Entidades Locales afectados cuando la obra no figure en el correspondiente planeamiento urbanístico, que deberán emitirlo en el plazo de un mes».

*Tercero.* Respecto a la materialización del trámite de información pública, el artículo 83 de la LPCAC (Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas) prevé lo siguiente:

«1. El órgano al que corresponda la resolución del procedimiento, cuando la naturaleza de éste lo requiera, podrá acordar un período de información pública.

EK\CV GAO-I-2025-03373

2. Horretarako, iragarki bat argitaratuko da dagokion aldizkari ofizialean, edozein pertsona fisiko edo juridikok aztertu ahal izan dezan espedientea edo erabakitzen den espediente-partea. Iragarkian, adierazi behar da erakustaldia non egingo den, eta hala eskatzen duten pertsonen eskura jarri beharko da, bitarteko elektronikoz, dagokion egoitza elektronikoan. Alegazioak egiteko epea ere zehaztu behar du iragarkiak, inoiz ez hogei egun baino gutxiagokoa.»

*Laugarrena.* Ebazpen hau emateko eskumena UPV/EHUko errektoreak du, UPV/EHUren Estatutuetako 230.1 artikuluan eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpeneko I. eranskineko 4. paragrafoko 4. puntuan ezarritakoarekin bat etorriz (errektorearen eskumenak eskuordetzeari eta Gobernu Taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteari buruzko Ebazpena, 2025eko otsailaren 19ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 34. zk.).

Horregatik guztiagatik, errektoreak

ERABAKI DU EZEN

*Lehenengoa.* Ekonomia eta finantza bideragarritasunaren azterlana hilabetez (1) jendaurrean jartzea, baita kostuen egituraren proposamena eta prezioak berrikusteko sistema ere (azken horiek 20 egunez).

Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

Epeak iraun bitartean, dokumentazioa interesdun guztien eskura egongo da Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan, baita kontratatzailearen profilean ere. Era berean, eskaria egiten duen ororen esku egongo da bide elektronikoen bitartez ere, UPV/EHUren egoitza elektronikoan.

Leioa, 2025eko maiatzaren 5a.—Joxerra Bengoetxea Caballero, errektorea, UPV/EHUko 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakian aurreikusitakoaren arabera. (3373)

2. A tal efecto, se publicará un anuncio en el Diario oficial correspondiente a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente, o la parte del mismo que se acuerde. El anuncio señalará el lugar de exhibición, debiendo estar en todo caso a disposición de las personas que lo soliciten a través de medios electrónicos en la sede electrónica correspondiente, y determinará el plazo para formular alegaciones, que en ningún caso podrá ser inferior a veinte días.»

*Cuarto.* Es competente para dictar esta Resolución el Rector de la UPV/EHU, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 230.1 de los Estatutos de la UPV/EHU y con lo previsto en el apartado 4.º, punto 4 del anexo I de la Resolución de 30 de enero de 2025, del Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre delegación de competencias del Rector y estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su Equipo de Gobierno (*Boletín Oficial del País Vasco* núm. 34 de 19 de febrero de 2025).

Por todo ello, este Rector

RESUELVE

*Primero.* Someter a información pública el estudio de viabilidad económico-financiera por el plazo de (1) mes, y la propuesta de estructura de costes junto con el sistema de revisión de precios por espacio de (20) días.

El inicio del cómputo del plazo será desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Durante dicho plazo la documentación se encontrará a disposición de las personas interesadas en las dependencias del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, así como en el Perfil del Contratante. Igualmente estará a disposición de las personas que lo soliciten a través de medios electrónicos en la sede electrónica de la UPV/EHU.

Leioa, a 5 de mayo de 2025.—El rector, Joxerra Bengoetxea Caballero, de conformidad con lo previsto en la Resolución de la UPV/EHU de fecha 30 de enero de 2025. (3373)

EK\CV GAO-I-2025-03373